

BIKALAMA



Bittor Martin, Karmele Cipitria, Laida Arrondo eta Maddi Salutregi

BALOREZKO PROPOSAMENA

Askotan, mendira joatean adibidez, landare eta harri mota desberdin asko ikus ditzakegu, baina ez ditugu ezagutzen naturaren elementu hauek. Beste askotan, entzuna dugu landare edo mineralen izen bat eta erabilera, baina ez dakigu itxuraz nolakoa den. Hau guztia konpontzeko asmoz, Geopedia izeneko aplikazioa sortu dugu.

Guk mugikor, ordenagailu zein "tablet"-erako aplikazio bat sortu dugu. Aplikazio honi esker, landare eta mineral ezberdinak identifikatu ahal izango dira. Honez gain, batetik landareen kasuan, identifikatutako landarea sendabelar bat izanez gero, bere erabilerak ere azalduko dira, errezeta eta guzti. Harri edo mineralen kasuan berriz, beste hainbat datu ere azalduko dira, hala nola hauen ezaugarriak, bere erabilera eta zein energia transmititzen duten.

Gure aplikazioa doakoa izango da. Aplikazio honi esker mineral eta landareak bereizteko hiru metodo eskainiko ditugu:

- Lehenengoa, argazki bidezko identifikazioa izango da. Hau da, erabiltzaileak edozein harri edo landareri argazkia atera, eta gure aplikazioak eskaneatu egingo ditu, ondoren guk aplikazioan lehenagotik sartuta ditugun argazki eta informazioarekin alderatuko ditu eta momentuan identifikatutako landare edo mineralari buruzko informazio guztia emango du.
- Bigarren metodoa, berriz, test modukoa izango da. Aplikazioak galderak egingo dizkio erabiltzaileari, galdera zabalak eginez hasiko da, eta gero eta zehatzagoak egingo dizkio bukaeran. Horrela, gure datu basean dugun bilduma zabaletik hasi, eta erabiltzailearen erantzunei esker harri eta landareak baztertzen joango da aplikazioa, bukaeran, harri edo landare bat identifikatu arte.
- Hirugarren metodoan, erabiltzaileek gure bilduma osoa ikusi ahal izango dute, sailkapen desberdinak eginda. Metodo hau harri eta landareen entziklopedia modukoa izango da.

